

ZER PROPOSATZEN DU ELAk?

¿QUÉ PLANTEA ELA?

Euskal langileek gure lan-baldintzei dagozkien erabakiak bertan hartzeko aukera izan dezagun nahi du ELAk, Espainiako hitzarmenen ondorio kaltegarriak geldiarazteko.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO GURE HELBURUAK

KPIri atxikiriko soldata-igoerak, prekarietatea geldiaraztea, hitzartutako baldintzen txartzea eragozte, sinatu diren hitzarmenak eta ultraaktibitatea aplikatuko direla bermatzea eta abar.

ITUN KOLEKTIBO LOTESLEAK SUSTATZEA

Erreformen ondorioz, sektoreko hitzarmenak nahitaezko gutxienekoa izateari utzi diote. Gainera, patronalak sektore gehienengan eragiten duen blokeoa kontuan hartuta, hitzarmen kolektibo lotesleak bultzatzeko lanean dihardu ELAk.

ELA quiere que las trabajadoras y los trabajadores vascos podamos tomar aquí las decisiones que afectan a nuestras condiciones de trabajo y detener las nefastas consecuencias de los convenios españoles.

NUESTROS OBJETIVOS EN LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA

Subidas salariales vinculadas al IPC, frenar la precariedad, impedir retrocesos en las condiciones pactadas, garantizar la aplicación de los convenios firmados y la ultraactividad etc.

IMPULSAR CONVENIOS COLECTIVOS VINCULANTES

Las reformas han establecido que los convenios del sector dejen de ser un mínimo obligatorio. Además, teniendo en cuenta el bloqueo que la patronal ejerce sobre la mayoría de los sectores, ELA trabaja para impulsar convenios colectivos vinculantes.



EUSKAL PATRONALAK NEGOZIAZIOAK ERAGOZTEN DITU ESTATUKO ITUNEZ BALIATZEKO

LA PATRONAL VASCA BLOQUEA LAS NEGOCIACIONES PARA APROVECHARSE DE LOS CONVENIOS ESTATALES

Euskal patronalak erabaki du proposatzen dituen baldintzak onartzen ez baditugu (hitzarmenetan atzera-jotzea, lanaldiak luzatu eta malgutasuna handitzea...) negoziazioa blokea dezakeela. Horrela, estatuko itunak aplikatzea eta gure soldatak eta baldintzak kaltetzea lortzen dute.

La patronal vasca ha decidido que si no aceptamos las condiciones que plantea (retrocesos en los convenios, aumentos de jornada, de flexibilidad...) bloquea la negociación. Así, consiguen aplicar los convenios estatales y devaluar nuestros salarios y condiciones.



Estatuko erreforma eta hitzarmenekin prekariedade eta pobrezia handiagoa.

Con reformas y convenios estatales más precariedad y pobreza.



GURE ERABAKI AHALMENA BERRESKURATZEKO PLANA

UN PLAN PARA RECUPERAR NUESTRO PODER DE DECISIÓN

Langileek euren lan-baldintzei buruzko erabakiak bertatik bertara hartzeko eskubidea berreskura dezaten borrokatuko da ELA. Horretarako, honako ekintza hauek egingo ditugu:

- Negoziazio kolektiboa euskal eremuan gauzatzearen aldeko ekimena aurkeztuko dugu Eusko Legebiltzarrean, gure autogobernuak eskubide hori jaso dezan.
- Iñigo Urkullu lehendakariari eta Uxue Barkos, Nafarroako presidenteari bilera egiteko eskatu diegu. Lehendakariak uko egin dio ELAekin bilera egiteari.
- Prestatu dugun dokumentua Madrilgo Gorteetako, Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko taldeei helaraziko diegu.
- Lan Harremanetarako eta Gizarte Babeserako Euskal Esparruarekiko gure konpromisoa berresten dugu.
- Alderdiei gurekin bilera egiteko eskatuko diegu negoziazio kolektiboaren estatizazioaren aurka euren laguntza jasotzeko.

Eta, jakina, patronalak lortu duen botere izugarria geldiarazteko modurik eraginkorrena sindikatua indartzea dela azpimarratu nahi dugu. Bakarka, banaka-banaka bagabiltza, patronalak eta gobernuak nahi dutena egingo dute. Talde moduan lortuko dugu soilik, haiei aurre egiteko eta gure eskubideak defendatzeko indarra.

ELA va a luchar para devolver a los y las trabajadoras su derecho a decidir sobre sus condiciones de trabajo aquí. Para ello, vamos a desarrollar las siguientes acciones:

- Plantear al Parlamento Vasco una iniciativa en defensa de la negociación colectiva en el ámbito vasco, para que nuestro autogobierno recoja este derecho.
- Hemos solicitado reuniones con el Lehendakari Iñigo Urkullu y a la presidenta de Nafarroa Uxue Barkos. El Lehendakari se ha negado a reunirse con ELA.
- Dirigir el documento que hemos elaborado a los Grupos Parlamentarios de Madrid, del Parlamento Vasco y de de Nafarroa.
- Reafirmar nuestro compromiso con el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social.
- Solicitar reuniones a los partidos para recabar su apoyo contra la estatización de la negociación colectiva.

Y, por supuesto, insistir en que la forma más eficaz de frenar el poder inmenso que la patronal ha obtenido es reforzando el sindicato. Si vamos uno por uno, una por una, la patronal y los gobiernos harán lo que quieran. Solo actuando conjuntamente conseguiremos la fuerza necesaria para hacerles frente y defender nuestros derechos.

EL NEOLIBERALISMO VASCO PREFIERE LOS CONVENIOS ESPAÑOLES

HEMEN, GEUK ERABAKI

NUESTRAS DECISIONES, AQUÍ



HITZARMEN ESTATALEK POBREZIA AREAGOTZEN DUTE
LOS CONVENIOS ESTATALES AUMENTAN LA POBREZA

HEMENGO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ALDE
POR UNA NEGOCIACIÓN COLECTIVA DE AQUÍ

EUSKAL GEHIENGO DEMOKRATIKOAREN ERRESPEITUAGATIK
POR EL RESPETO A LAS MAYORÍAS DEMOCRÁTICAS VASCAS



HEMEN, GEUK ERABAKI

NUESTRAS DECISIONES, AQUÍ

Ez da kilometro kontua, duintasun kontua baizik. Confebaskek eta estatuko sindikatuek estatuko hitzarmenak Madrilen negoziatzen jarraitzen duten bitartean, gure baldintzek okerrera egingo dute hemen.

No es cuestión de kilómetros, es cuestión de dignidad. Mientras Confebask y los sindicatos estatales continúen negociando los convenios estatales en Madrid, nuestras condiciones seguirán empeorando aquí.

METODOA / MÉTODO

Patronalak euskal hitzarmenen negoziazioa blokeatzen du estatuko itunak indarrean jar daitezen. Hitzarmen horiek Madrilen adosten dira CCOO eta UGT sindikatuekin, euskal eremuan minoritarioak direnak.

La patronal bloquea la negociación de los convenios vascos para que entren en vigor los convenios estatales. Dichos convenios se acuerdan en Madrid con CCOO y UGT, que son minoritarios en el ámbito vasco.



EMAITZA / RESULTADO

Gutxiengo pribilegiatu baten etekinak handitu egiten dira; langile-klasea prekarietatean hondoratzen dute.

Soldaten jaitiera horren ondoren, gainera, gizartearen txirotze larria gertatzen da.

Aumentan los beneficios de una minoría privilegiada; hunden en la precariedad a la clase trabajadora.

Tras esa caída salarial se produce, además, un grave empobrecimiento social.



JUSTIZIA SOZIALA / JUSTICIA SOCIAL

Eusko Jaurilaritza eskatzen diogu ez laguntzeko eta ez finantzatzeko Confebask orain arte egin duen bezala; askatasun sindikalaren eta negoziazio kolektiborako eskubidearen alde egiteko eskatzen diogu.

Demandamos al Gobierno Vasco que no apoye y financie a Confebask como viene haciendo hasta ahora; que defienda la libertad sindical y el derecho a la negociación colectiva.

EUSKAL NEOLIBERALEK NAHIAGO DITUZTE ESPAINIAKO HITZARMENAK

EL NEOLIBERALISMO VASCO PREFIERE LOS CONVENIOS ESPAÑOLES

Baina ez da Confebask Madrilen hartzen diren erabakietatik onura atera nahi duen bakarra. Enpresa askok Espainiako legeak baliatzen dituzte lan-baldintza txarragoak ezartzeko. Corporación Mondragón-ek (MCC), esaterako. "Erroturik" dauden euskal enpresak izan arren, Espainiako hitzarmenei muzin egiten ez dietenak.

Estatuko sindikatuek ere nahiago izaten dute Espainia. Hego Euskal Herrian sektoreko negoziazioaren alde daudela esaten duten bitartean, UGT eta CCOO sindikatuek erreformak erabiltzen dituzte euskal eremuan gehiago garenok non eta zer negoziatzen dugun erabaki dezagun eragozteko.

Beste alde batetik, Eusko Jaurilaritzak, estatuko hitzarmen horiek aplikatzea ezartzen du haren mende dauden azpikontratetan. Soldaten jaitsierak doikuntzak aurrekontuetan koadratzea ahalbidetzen die, murrizketak eginez.

No solo Confebask trata de sacar ventaja de las decisiones tomadas en Madrid. Muchas empresas optan por aprovechar las leyes españolas para imponer peores condiciones laborales. Es el caso de la Corporación Mondragón (MCC). Empresas vascas "arraigadas" que no hacen ascos a los convenios españoles.

Los sindicatos del ámbito estatal también prefieren España. Mientras en Hego Euskal Herria dicen defender la negociación sectorial, UGT y CCOO usan las reformas para impedir que la representación mayoritaria en el ámbito vasco decidamos dónde y qué negociamos.

Por su parte, el Gobierno Vasco impone la aplicación de esos convenios estatales en el subcontratas que dependen de él. La bajada salarial le permite cuadrar los ajustes en los presupuestos, realizando recortes.



GUGAN ERAGINA DUTEN GAIETAN ERABAKI NAHI DUGU

QUEREMOS DECIDIR EN LOS TEMAS QUE NOS AFECTAN

Gaurkoz, honako hitzarmen hauetan eragozten digute negoziazioa, hein batean edo bestean: Kasu batzuetan, estatuko hitzarmenek desagerrarazi egiten dute hemen negoziatzeko aukera; beste batzuetan berriz, gai batzuk gordetzen dituzte Madrilen soilik negoziatzeko. Kasu guztietan lan-eskubideak galtzen ditugu. Adibide bat: estatuko Errestaurazioko Hitzarmenak % 50eko soldata-galera eta urtean 50 ordu gehiago ezartzen ditu.

1. Ostalaritzako Esparru Akordioa (ALEH).
2. Errestaurazioko hitzarmena.
3. Lorezaintzako hitzarmena.
4. Ile-apaindegietako hitzarmena.
5. Drogeria, lurrindegia eta belar-dendetako hitzarmena.
6. Estatuko Merkataritzako Akordio Markoa.
7. Metalgintza sektorea.
8. Kontserbagintza sektorea.
9. Eraikuntzako sektorea.
10. Mendeko pertsonen arretarako eta autonomia pertsonalaren garapenerako zerbitzuen estatuko esparru hitzarmena.

Actualmente, estos son algunos de los convenios en los que se nos impide, de una u otra manera, negociar. En unos casos, los convenios estatales eliminan la posibilidad de negociar aquí; en otros, se reservan materias para negociar solo en Madrid. En todos los casos perdemos derechos. Un ejemplo: el Convenio de Restauración estatal establece una pérdida salarial del 50% e incremento de 50 horas más al año.

1. Acuerdo Marco de Hostelería (ALEH).
2. Convenio de Restauración.
3. Convenio de Jardinería.
4. Convenio de Peluquerías.
5. Convenio de Droguerías, perfumerías y herboristerías.
6. Acuerdo Marco de Comercio Estatal.
7. Sector del metal.
8. Sector de conservas.
9. Sector de la construcción.
10. Convenio Marco estatal de Servicios de Atención a las personas dependientes y desarrollo de la promoción de la autonomía personal.

Kaltetutako sektoreak errepasatzen baditugu, ikus daiteke emakumeek pairatzen duten txirotzea eta prekarietatea larriagotzen dituela estatualizazioak.

Si se repasan los sectores afectados, se puede ver que la estatualización agrava el empobrecimiento y la precariedad que sufren las mujeres.



CORPORACIÓN MONDRAGÓN (MCC)
Arrasate

EMPRESAS VASCAS "ARRAIGADAS"
TAMBIÉN IMPONEN CONVENIOS ESTATALES



ARCELORMITTAL
Zumarraga

LANEKO LEGERIAK EZ DU
GURE INTERESEN ALDE EGITEN
LAGUNTZEN



GURE INDUSTRIAREN DEFENTSA
Por una política industrial real

AUTOGOBERNUA? ZERTARAKO?
¿AUTOGOBIERNO? ¿PARA QUÉ?

Madrilen negoziatzeak txartu egiten ditu euskal langile gehienon baldintzak eta gure herria txirotzen du. Hori dela eta, aberastasuna banatzen laguntzen duten tresnak eskatzen ditugu. Horren ildotik, ELAk gogorarazi nahi dio EAJri 1994. urtean babes-klausula bat txertatu zuela Espainiako legean euskal hitzarmenak hemen erabaki zitezen, eta ez Madrilen. Gaur egun ez du gauza bera defenditzen, eta gainera, haren erantzukizun-eremuetan estatuko hitzarmenak aplikatzen ditu.

Negoiazio kolektiborik gabe ez dago autogobernurik. ELAk ez du sinesten euskal gehiengo sindikalari askatasun sindikalerako eta kolektiboki negoziatzeko eskubidea ukatzen dizkion autogobernu baliogabetu batean. Lana duintzen laguntzen duten hitzarmenak nahi ditugu.

Las negociaciones en Madrid empeoran las condiciones de la mayoría de las trabajadoras y trabajadores vascos y empobrecen nuestro país. Por ello, exigimos instrumentos que ayuden a la distribución de la riqueza. En este sentido, ELA recuerda al PNV que en el año 1994 fue capaz de introducir en la ley española un salvaguarda para que los convenios vascos se decidiesen aquí y no en Madrid. Hoy, no solo no defiende lo mismo, sino que en sus ámbitos de responsabilidad, aplica los convenios estatales.

Sin negociación colectiva no hay autogobierno. ELA no cree en un autogobierno devaluado en el que se niegue a las mayorías sindicales vascas el derecho a la libertad sindical y a negociar colectivamente. Queremos convenios que ayuden a dignificar el trabajo.